

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

564/2026 Erabakia, irailaren 8koa Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea etxebizitzak eta/edo zuzkidura bizitokiak birgaitzeko dirulaguntza lerroaren ebazpenari, gazteen alokairu erregimenaren bidezko emantzipazioari laguntzeko. Dirulaguntza horietarako deia Foru Gobernu Kontseiluaren apirilaren 21eko 242/2026 Erabakiaren bidez egin zen

Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 31ko 12/2026 Foru Dekretuaren bidez, onetsi ziren toki erakundeei alokairu sozial eta/edo babesturako eta gazteen emantzipaziorako etxebizitzak erosteko eta birgaitzeko ematen dizkien dirulaguntzen oinarri arautzaile orokorrak. Foru dekretu hori 2026ko apirilaren 8ko ALHAOn argitaratu zen, 40. zenbakian.

Foru Gobernu Kontseiluaren apirilaren 21eko 242/2026 Erabakiaren bidez, onetsi zen toki erakundeei alokairu sozial eta/edo babesturako eta gazteen emantzipaziorako etxebizitzak erosteko eta birgaitzeko dirulaguntzak emateko 2026ko deialdia. Deialdi hori 2026ko apirilaren 29ko ALHAOn argitaratu zen, 49. zenbakian.

Dirulaguntza hauen xede nagusia da toki erakundeak finantzatzea, etxebizitzak edo beste higiezin batzuk erosteko eta birgaitzeko, alokairu sozialeko edo babestuko araubideko etxebizitzetarako erabil ditzaten.

Deialdi honek diruz lagundu daitezkeen lerro hauek ditu:

a) Alokairu sozial eta/edo babesturako etxebizitzak eskuratzea, betiere bitartekaritza publikoarekin.

b) Etxebizitzak eta/edo zuzkidura bizitokiak birgaitzea, gazteak alokairu erregimenean emantzipatzen laguntzeko. Zuzkidura bizitokiaren kasuan, lehendik bizitegi erabilera izan ez duten higiezinak baino ez dira onartuko.

c) Alokairu sozial eta/edo babesturako etxebizitzak birgaitzea, betiere bitartekaritza publikoarekin.

Ebazten ari den lerroan, b) letrakoa, norgehiagoka prozedura da dirulaguntzak emateko metodologia, eta ezarritako aurrekontu esleipenarekin ezin badira diruz lagundu aurkeztutako eskaera guztiak, lagunduko diren jarduketak hautatzeko, dirulaguntza jaso dezakeen eta aurkeztu den eskaera bakoitza baloratuko da eta puntuazio bat emango zaio. Horrela, eskatutako jarduketak ordenatu ahal izango dira, eta lehentasun ordenari jarraituko zaio dirulaguntza esleitzeko. Lerro honetarako deialdiaren saldoa 1.000.000,00 euro da, eta aplikatuko diren balorazio irizpideak deialdiaren zazpigarren oinarrian jasotakoak dira.

Manu horiek eta deialdian eta oinarrietan ezarritako betekizun guztiak kontuan hartuta, Balorazio Batzordeak aurkeztu diren eskaerak aztertu ditu, eta akta bat egin du, 2026ko uztailaren 24an, non zehazten baitira eskaera horien betetze mailaren emaitza, bai eta dirulaguntzen ebazpenaren eta emakida bakoitzean diruz lagundu beharreko zenbatekoak esleitzeko proposamena ere, xedapen zatiaren lehenengo eta laugarren apartatuetan jasotako baldintzetan.

Egiaztatu da diruz lagundu beharreko zenbatekoa lerroaren gehienekoa baino txikiagoa dela, eta, beraz, eskabideak ez dira baloratzen, eta onargarri guztiak diruz lagundu ahal izango dira osorik. Aurkeztutako eskabideen xehetasunak eta aurkeztutako aurrekontuak I. eranskinean daude jasota.

Horrenbestez, balorazio batzordearen akta aztertuta eta Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatuaren proposamenez, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onespena ematea II. eranskinean zehaztutako erakundeei etxebizitzak eta/edo zuzkidura bizitokiak birgaitzea finantzatzeko 760.000,00 euroko dirulaguntzak emateari, alokairu araubidean dauden gazteen emantzipazioari laguntzeko.

Bigarrena. III. eranskinean jasotako eskabideak ez onartzea, eranskinean bertan adierazitako arrazoiengatik.

Hirugarrena. Ordainketak izendunak izango dira toki erakunde onuradun bakoitzarentzat. Era honetan ordainduko dira dirulaguntzak:

- Guztirako zenbatekoaren ehuneko 50 dirulaguntzak emateko ebazpena eman (2026ko abenduaren 31 baino lehen) eta toki erakunde onuradunak obra lizentzia edo horren ordezkot legeko agiria aurkeztu ondoren.

- Beste ehuneko 25, toki erakunde onuradunek lehen ehuneko 50ari lotutako gastuen eta ordainketen justifikazioa aurkeztu ondoren. Ordainketa hau ez da egingo 2027ko urtarrilaren 1a baino lehen. Justifikazio hori 2027. urtean aurkeztuko da.

- Gainerako ehuneko 25a, gastu guztia justifikatu ondoren.

Laugarrena. Higiezinaren birgaitzea 24 hilabeteko epean egin beharko da, ebazpena argitaratzen denetik zenbatzen hasita, eta justifikazio kontua aurkezteko azken eguna hilabetekoa izango da, exekuzioa amaitzen den egunetik zenbatzen hasita.

Bosgarrena. Ebazpen honi lotutako gastuaren xedapena kontabilizatzea, 760.000,00 euroan, Arabako Foru Aldundiaren 2026rako aurrekontuko “10202. G/920102/76290115 Ituna Etxebizitza Eskubidearen alde” partidari.

Seigarrena. Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45. artikulua 1. apartatuaren b) letran xedatutakoarekin bat etorritik, prozeduraren ebazpena ALHAOn argitaratuko da eta argitalpenak jakinarazpen ondorioak izango ditu.

Zazpigarrena. Ebazpen hau behin betikoa da administrazio bidean, eta beronen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu daiteke Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, administrazio egintza honen bidezko jakinarazpena jaso ondorengo egunetik aurrera, bat etorritik jurisdikzio hori arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan ezarritakoarekin. Hala ere, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio egintza eman duen organoari, hilabeteko epean, administrazio egintza honen jakinarazpena jaso ondorengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko irailaren 8a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatua

LAURA PÉREZ BORINAGA

Lurralde Orekaren zuzendaria

JAVIER GORBEÑA GARCÍA

ANEXO I // I. ERANSKINA
SOLICITUDES PRESENTADAS // AURKEZTUTAKO ESKABIDEAK

EXPEDIENTE ESPEDIENTEA	SOLICITANTE ESKATZAILEA	NIF IFZ	PRESUPUESTO PRESENTADO AURKEZTUTAKO AURREKONTUA	PRESUPUESTO SUBVENCIONABLE DIRUZ LAGUN DAITEKEEN AURREKONTUA
01400002-2026/00001	Ayto. Salvatierra	P0105700I	2.128.575,58	1.318.644,00
01400002-2026/00003	J. A. Korres	P0100046B	152.871,41	119.448,00
01400002-2026/00004	J. A. Peñacerrada	P0100199I	1.346.686,41	1.104.348,00
01400002-2026/00005	Ayto. Valdegovia	P0106300G	370.017,52	216.012,00

ANEXO II // II. ERANSKINA
CONCESIÓN DE SUBVENCIONES // DIRULAGUNTZAK EMATEA

EXPEDIENTE ESPEDIENTEA	SOLICITANTE ESKATZAILEA	NIF IFZ	PRESUPUESTO SUBVENCIONABLE DIRUZ LAGUN DAITEKEEN AURREKONTUA	PORCENTAJE SUBVENCIÓN DIRULAGUNTZAREN EHUNEKOA	SUBVENCIÓN SEGÚN PRESUPUESTO AURREKONTUAREN ARABERAKO DIRULAGUNTZA	SUBVENCIÓN SEGÚN MÓDULOS MODULUEN ARABERAKO DIRULAGUNTZA	SUBVENCIÓN DIRULAGUNTZA
01400002-2026/00001	Ayto. Salvatierra	P0105700I	1.318.644,00	50%	659.322,00	520.000,00	520.000,00
01400002-2026/00003	J. A. Korres	P0100046B	119.448,00	90%	107.503,20	96.000,00	96.000,00
01400002-2026/00005	Ayto. Valdegovia	P0106300G	216.012,00	75%	162.009,00	144.000,00	144.000,00

ANEXO III // III. ERANSKINA
SOLICITUDES DENEGADAS // UKATUTAKO ESKAERAK

EXPEDIENTE ESPEDIENTEA	SOLICITANTE ESKATZAILEA	NIF IFZ	MOTIVO ARRAZOIA
01400002-2026/00004	J. A. Peñacerrada	P0100199I	No ha sido solicitada en plazo la licencia municipal de obras Obretarako udal-lizentzia ez da epe barruan eskatu